

Banku-sukurtsalen kopurua ia erdira jaitsi da azken hamarkadan, Euskal AEn

Euskal AEn ia etxe guztiek dute 4G estaldura mugikorra

Eustatek jarraitzen du Euskal AEn Nazio Batuen *Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendan* jasotzen diren 169 xedeen eta garapenerako lankidetzako 17 helburuen betetze-maila kalkulatu ahal izateko estatistika-adierazleak etengabe areagotzeko eta bereizteko duen konpromisoarekin.


Oraingoan, guztira, 20 estatistika-adierazle berri jasotzen dira hobetu berri den Eustaten [Euskal AEko Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleen zabalkunderako plataforman](#). Horiek guztiak autonomia-erkidegoen artean bateratutako metodologia bati jarraikiz zehaztu dira; beraz, haien erabateko eta zuzeneko konparagarritasuna bermatuta geratzen da.

8.10 Helmuga. Finantza-erakunde nazionalak pertsona guztientzako banku-, finantza- eta aseguru-zerbitzuetarako sarbidea sustatzeko eta zabaltzeko duten ahalmena areagotzea

8.10.1 a) Banku komertzialen kopurua 100.000 pertsona helduko, eta b) kutzazain automatikoen kopurua 100.000 pertsona helduko



Banku komertzialen bulegoen kopurua, 15 urte eta gehiagoko 100.000 biztanleko




Iturria: Eustat. 2030 Agendako garapen jasangarriaren adierazleak

Eustaten plataforman sartzen diren adierazleen artean, dagoeneko Euskal AEn informatutako Nazio Batuen helburu, xede edo adierazleak osatzen dituztenen artean, **15 urteko eta gehiagoko 100.000 biztanleko merkataritza-bankuen sukurtsal kopurua** dago. Azken hamaika urteotan, asko murriztu da sukurtsal kopurua; 2010ean 100.000 biztanleko 103,15 sukurtsal zeuden eta, 2021ean, 56,93.

Beste adierazle berrietako bat **4G sare mugikorrak dituzten etxeen proportzioa** da. Kasu honetan, 2014tik 2019ra estaldura handitu da; urte horretan, ia etxeen % 100ak zuen 4G estaldura, bai Euskal AEn bai hiru lurralde historikoetan.

9.c Helmuga. Nabarmen areagotzea informazioaren eta komunikazioen teknologiarako sarbidea, eta, 2020rako, aurrerapen txikieneko herrialdeei Internetarako sarbide unibertsala eta arrazoizkoa emateko ahalegina egitea


9.c.1 Adierazlea. Sare mugikorraren estaldura duen biztanleriaren proportzioa, teknologiaren arabera banatuta



Iturria: Eustat. 2030 Agendako garapen jasangarriaren adierazleak

Eustatek jarraitzen du [Euskal AEko Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendaren adierazleak zabaltzeko plataforma](#) etengabe garatzeko lanean, batetik, dagoeneko argitaratutako estatistika-adierazleen bereizketak eskaintzeko, eta, bestetik, egun arte bete ez diren xedeen gaineko informazioa ematen duten adierazle berriak sartzeko. Hurrengo irudian, gaur egun garapen jasangarrirako 17 helburuetako bakoitzean Euskal AErako zehaztutako adierazleen kopurua adierazten da. Gutxien informatutako garapen jasangarrirako helburuetan adierazle berriak sartzeari Eustaten lehentasun bat da, bai eta Euskal AE mailan eskuragarri dauden adierazleen bereizketa geografikoa ere. **Udal-mailan adierazleak** eskuratzeari, metodologia bateratu bati jarraikiz eta kalitateko informazio-iturriak erabiliz, Eustatek une hauetan duen erronka handiena da.

GJHeK informatutako adierazleen kopurua



Iturria: Eustat. 2030 Agendako garapen jasangarriaren adierazleak

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62